

### Adierazi hezkuntza-etapa hauetako zeinetan lan egiten duzun

- LHko 3. zikloa
- Lehen Hezkuntza
- DBHko 1. eta 2. mailak
- Lehen Hezkuntza
- Lehen Hezkuntza
- DBH
- DBH
- Hezkuntza-edukiak

### Nola baloratzen dituzu maila bakoitzeko hezkuntza-edukiak?

- DBHko 2. maila: egiten diren bi irtenaldiak oso interesgarriak dira. Sopolakoak beste ikuspegi bat eskaintzen die ikasleei; gainera, ekosistema babesteko beharra aldarrikatzen da. Meatzaldeko irtenaldiari esker gure historiarekin harremanetan jartzen gara. Nire ustez, oso interesgarriak eta positiboak dira.
- Egokiak.
- DBHko 1. maila, oso positiboa.
- 6. mailan egindako jarduerak oso egokiak izan dira.
- Positiboki.
- 5. eta 6. mailako edukiak oso egokiak izan dira.
- Oso onak. Gainera, programazioarekin bat datoz. Oso egokia iruditzen zait bai 5. mailan bai 6. mailan egiten dena, eta balorazio positiboa egiten dut.
- 5. eta 6. maila, oso egokiak iruditzen zaizkigu.

### Begiraleek edukiak eguneratu beharko lituzketela uste duzu?

- Dauden moduan ondo daude.
- Ezetz uste dut. Orain arte ezagutu ditudan begiraleek oso ondo ezagutzen dituzte edukiak, eta ikasleen beharretara ederto moldatzen dira.
- Ez.
- Ez daude batere zaharkituta.
- Ez, ez dugu edukiak eguneratzeko beharrik ikusten.
- Lehen ere esan dudana bezala, edukiak oso egokiak direla uste dut.
- Beti dago eguneraketak egiteko beharra. Dena den, esango nuke edukiak eguneratuta daudela, nahiz eta informazio historikoa ez den beti guztiz zuzena.
- Oso egokiak dira.
- Ez, edukien maila egokia da.

### Ibilbide ekologikoen programa beste mailetara ere zabaldu beharko litzatekeela uste duzu, jarduera berriak eskaintzeko?

- Bai.
- Bai, onuragarria izango litzatekeela uste dut.

- Egokia izan daiteke.
- Segur aski bai, baina ez dakit nola.
- Ez dut uste. Lehenengo Hezkuntzari dagokionez, hurbileko ingurunearen ezagutza nahikoa dela uste dut; hau da, gure udalerrria zergatik den den modukoa azaltzea eta zergatik ez den gainerako udalerrien antzekoa, baina informazioa gehiegi sakondu gabe.
- Bi irtenaldi horiek oso egokiak direla iruditzen zait. Nolanahi ere, hirugarren irtenaldi bat egitea oso zaila iruditzen zait; izan ere, ez dira ikasturtean zehar antolatzen diren bakarrak eta ikasgelan ere egon behar dugu.
- Nik ez dut uste programa Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklora zabaltzea egokia izango litzatekeenik.
- Agian bai.

**Ikastetxe batzuetan, Meatzaldera egiten den irtenaldia (DBHko 2. maila) DBHko 3. mailan egiten da. Zure zentroan neurri hori hartzea egoki iruditzen al zaizu?**

- Lehen Hezkuntzakoak gara.
- DBHn egiten den arren, egoki iruditzen zaigu.
- Ez zait egoki iruditzen Lehen Hezkuntzan irtenaldi hori egitea.
- Ez dut uste aldatu beharko litzatekeenik, baina 3. mailan ere egin beharko litzatekeela uste dut.
- 3. mailan egiten da.
- Ez daukat informaziorik.
- Bai.

**Ikasturte hasieran gaur egun eskaintzen diren irtenaldiez gain, interesgarria irudituko litzazueke Ibilbide Ekologikoetako taldeak aukerako beste ekimen batzuk proposatzea? (1 batere interesgarria - 5 oso interesgarria)**

1	2	% 12.5
2	3	% 18.8
3	5	% 31.3
4	3	% 18.8
5	3	% 18.8

**Bitartekoak eta baliabideak**

**Nola baloratzen dituzu ingurumen-hezitzaileek erabilitako baliabideak?**

- Oro har, egokiak dira.

- Oso ondo.
- Egokiak dira, orokorrean.
- Oso onak.
- Ondo.
- Egokiak.
- Ondo.
- Ondo.

### **Ikasgelan lan egiten den ikastetxeetan baliabide digitalen erabilera sustatu beharko litzatekeela uste duzu?**

- Ez dugu uste beharrezkoa denik.
- Bai.
- Motibagarriagoa izango litzateke ikasleentzat.
- Ez dugu uste beharrezkoa denik.
- Bai, beste alorretan bezala.
- Nahitaezkoa da. Izan ere, gaur egun ikasgelan ditugun baliabide digitalak aprobetxatuz, ikuspegi zabalagoa eskaini daitekeela uste dut. Aurten, esate baterako, 5. mailan, oso egokia iruditu zait orain arte ahoz azaldu ohi zen zati bat Power Point baten bidez azaltzea, horrela ikasleei argiago geratu baitzaie. Gainera, oso ondo iruditu zait ikasgelara txorien txioak, infografiak eta dokumental laburrak ekartzea...
- Bai.
- Dagoeneko ikasgelan dagoen materiala denez, zergatik ez?

### **Ikasleek jardueretatik ateratzen duten etekina handitzeko helburuarekin, jardueraren ostean lan txiki bat egitea beharrezkoa iruditzen zaizu?**

- Ez litzateke txarto egongo.
- Ondo egongo litzateke, baina ez dugu uste beharrezkoa denik.
- Gogoan hartu beharko litzateke.
- Ondo egongo litzateke, baina ez genuke denborarik izango.
- Ez zait txarto iruditzen. Agian ondo egongo litzateke proiekturen bat sortzea.
- Ez.
- Ez litzateke txarto egongo, betiere ikasgai horretako irakasle edo tutoreari lan gehiago ematen ez badio.
- Bai.
- Ondo egongo litzateke bukatzeko lan txiki bat egitea, ikasitakoari buruz hausnarketa sakonago bat egiteko.

Antolakuntza eta alderdi orokorrak.

### **Nola baloratzen duzu jardueren garapena ordutegiari, puntualtasunari eta antolakuntzari dagokionez? (1 txarto - 5 ondo)?**

1	2	%	12.5
2	1	%	6.3
3	2	%	12.5
4	5	%	31.3
5	6	%	37.5

**Aurreko galdera positiboki baloratu ez baduzu, zer hobetu beharko genukeela uste duzu? Egokia iruditzen zaizu ikasturtearen hasieran jardueri buruz eskaintzen dizuegun informazioa?**

- Bai.
- Bai.
- Ez dut oso ondo ezagutzen.
- Bai, egokia iruditzen zait.
- Bai. Edonola ere, jarduera hori urtarriletik aurrera egiten bada, irailean ez dakizu zehatz-mehatz jarduera noiz egingo den, eta horrek ikasturtearen plangintza orokorra egitea eragozten du.
- Bai.
- Ez.
- Bai.

**Irtenaldietan material grafiko gehiago erabiltzeko beharra ikusten duzu?**

- Bai.
- Hasiera batean, ez.
- Orain arte ez dut behar hori sumatu, beharrezkoak diren irudiak dagoeneko errealitateak berak eskaintzen baitizkigu.
- Interesgarria izango litzateke antzinako argazkiak izatea.
- Ez.
- Ez.
- Agian bai.

**Bukatzeko, esango zeniguke Ibilbide Ekologikoak programaren alderdi positibo bat eta beste alderdi negatibo bat?**

- Irtenaldiak oso egokiak dira hirugarren zikloko ikasleentzat. Begiraleak oso ondo prestatuta daude. Eguraldiaren menpe gaude.
- Ez dut uste alderdi negatiborik dagoenik. Den-dena positiboa iruditu zait, ikasleek beren hurbileko ingurunea ezagutzeko aukera ederra baita.
- 6. mailan egutegia zehazteko arazoak izan ditugu; gainerakoari dagokionez, primeran.
- Positiboa, oso interesgarria, baita niretzat ere. Praktikoa, eguneroko bizitzan ingurumena babesteko ideiekin.

- Positiboa.
- Egokitu zaigun biologoak lan ederra egin du eta ikasleekin oso atsegina da.
- Hiriko ibilbidea, 1. mailan, ondo. Irtenaldi geologikoa Sopelara, ondo. Baina Zugaztietara egiten den irtenaldiari dagokionez zalantzak dituz; izan ere, ez dut uste 2. mailako ikasleentzat oso aproposa denik. Eduki historikoak abstraktuegiak iruditzen zaizkit. Nolanahi ere, ez dakit zer, noiz eta nola lantzen diren gai horiek DBHn.
- Ahozko azalpen hutsa egin beharrean, ondo egongo litzateke beste baliabide batzuk erabiltzea.
- Egia esan, ikasle gazteenentzat aproposagoak izango liratekeela uste dut. DBHko 3. mailan ez zait egokia iruditzen.
- Edukiei dagokienez (historikoak) agian bai, baina, beste alde batetik irakasleek ez dituzte irtenaldiak hain beharrezkotzat jotzen 3. mailan.
- Ondo, baina zenbat eta baliabide praktikoagoak erabili orduan eta arreta handiagoa jarriko dute ikasleek.
- Bai, hori uste dut, zalantzarik gabe.
- Bai, baina nork izango luke horren ardura? Ezin da ikasgaiaren irakaslearen esku utzi, horrek arazoak ekarriko bailituzke. Orain arte, irtenaldiaren ardura tutoreari egokitu zaio, eta ez zaigu beti ondo iruditzen.
- Zer egin dezakegu eguraldia gure alde egon dadin? Irtenaldiaz gozatzeko, eguraldi atsegina eduki behar dugu. Baina askotan baldintza oso "gogorretan" egin izan ditugu irtenaldiok.
- Informazio hori ikasgaiaren arduradunak ikusi eta baloratu ordez, tutoreak aztertzen du, eta hortxe dago koska; izan ere, interesak desberdinak dira, ez baitagokio tutoreari ezagutza historikoak eta geologikoak ezagutu eta baloratzea.
- Bai. Lehen ere esan dudana bezala, zenbat eta baliabide praktiko eta moderno gehiago erabili orduan eta arreta handiagoa jarriko dute ikasleek; horrenbestez, etekina ere handitu egingo da.
- Positiboa: ikasgelatik irtetea ingurunea modu praktikoan ezagutzeko. Negatiboa: eguneroko zereginetan daukan eragina: eskolak galtzea, azterketa-egunak aldatzea, dagoeneko programatuta zegoen irtenaldi bat egun berean bertan behera uzteak dakartzan ondorioak, irtenaldiak egunez aldatzea, atzerapenak...